


Euskal AEko industria-prezioak % 1,4 jaitsi dira 2023ko urrian, aurreko hilabetearekin alderatuta

2022ko urriarekin alderatuta, industria-prezioak % 6,0 jaitsi dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 1,4 jaitsi dira 2023ko urrian, aurreko hilabetearekin alderatuta. Industria-prezioen azken hamabi hilabeteetako aldakuntza jasotzen duen urriko urtetik urterako tasa % 6,0 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten duenez, 2023ko urrian beren prezioetan aurreko hilabetearekin alderatuta jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Zurgintza, papergintza eta arte grafikoak* (% 5,3ko jaitsiera) eta *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,4ko jaitsiera bi kasuetan) izan dira. Beren prezioetan hiletik hiler aigoerarik handienak izan dituzten sektoreak, berriz, *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 3,0ko igoera) eta *Erauzketa-industriak* (% 1,1eko igoera) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, *Energiaren* prezioak % 3,6 jaitsi dira 2023ko irailarekin alderatuta. Bestalde, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,8 jaitsi dira, eta *Bitarteko ondasunen* prezioak, berriz, % 0,9. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, berriz, % 0,1 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 0,2ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 0,1eko igoeraren ondorioz.

Urtetik urtera, 2023ko urria 2022ko urriarekin alderatuta, jaitsierarik handienak honako adar hauetan gertatu dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (-% 29,2), *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (-% 15,5) eta *Industria kimikoa* (-% 7,4). Urtetik urtera prezioetan igoerarik handienak izan dituzten adarrak, berriz, honako hauek izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 11,6), *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk* (% 9,6), *Botiken fabrikazioa* eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 6,9).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	129,7	-1,4	-6,0
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	126,9	1,1	11,6
Manufaktura-industria	130,4	-1,1	-0,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	132,0	0,1	6,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	116,0	3,0	6,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	139,9	-5,3	-0,6
Kokeak eta petrolio fintzen	153,4	-3,4	-15,5
Industria kimikoa	144,1	-0,7	-7,4
Botiken fabrikazioa	130,4	-3,1	6,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,7	-0,3	9,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,1	-0,5	-2,2
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,4	-1,2	2,7
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	116,7	0,0	3,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,2	-0,3	4,9
Garraioko materialen fabrikazioa	113,2	0,0	5,9
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,9	-2,5	4,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	125,7	-3,4	-29,2
Ura	133,0	0,5	8,2
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,7	0,1	5,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	118,4	0,1	5,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	131,6	0,2	5,4
Ekipo-ondasunak	118,2	-0,8	4,4
Bitarteko ondasunak	133,2	-0,9	0,2
Energia	141,6	-3,6	-23,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hila (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Azaroaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da helburu ekonomikoaren arabera sailkatutako ondasun-talde handi guztietan, *Energiaren* kasuan izan ezik, talde horretan % 23,9ko jaitsiera izan baitute prezioek. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 5,5eko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 5,4ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 5,7ko igoeraren ondorioz. *Ekipo-ondasunen* prezioak % 4,4 igo dira, eta, azkenik, *Bitarteko ondasunen* prezioen kasuan, igoera % 0,2koa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **95,46ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62